

ITUN EKONOMIKOA BERRETSI ETA DEFENDATZEAREN ALDEKO ADIERAZPENA, 2018KO OTSAILAREN 28AN ITUNAREN 140. URTEURRENA BETETZEAN

Euskal Itun Ekonomikoaren 140. urteurrena ospatzen dugu gaur. Haren garrantziaz jabetuta gaude, gure autogobernuaren zutabea baita; euskal herritar guztiei orainaldi hobea eta etorkizun itxaropentsua bermatzeko tresna, alegia.

Itun Ekonomikoa 1878az geroztik izan da euskal lurralde historikoen eta Estatuaren arteko harreman ekonomikoa eta finantzarioa artikulatzeko oinarria, eta 1981az geroztik, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoarena berarena artikulatu duena.

Kontzertua, bada, Euskadiren eta Estatuaren arteko hitzarmen politikoa da, berebiziko balioa duena, eta Konstituzioak berak babestutakoa. Arrasto eta irismen handiko hitzarmen batez ari gara. Gernikako Estatutuak berretsi du, eta haren bidez zera aitortzen zaie lurralde historikoei: erabateko ahalmena beren zerga-erregimena ezarri, mantendu eta arautzeko, autogobernurako izan duten bokazio sakon eta zabalaren isla gisa.

Euskal Itun Ekonomikoak esangura politiko handia du. Horrez gain, balio garrantzitsuak gehitzen dizkio Estatuarekin dugun harremanari. Egonkortasuna, oreka, kontrola eta erantzukizuna dira balio horiek. Itun honek Euskadiko gizarte osoaren babesba dauka, bakoitzaren ideologia eta adskripzio soziala gorabehera.

Euskadiko erakunde guztiak —lurralde historikoetako batzar nagusiek, foru-aldundiek, Eusko Legebiltzarrak eta udalek— bete-betean babesten dute sistema itundua. Izan ere, sistema hori funtsezkoa da elkarrekin bizitzeko konpromiso politikorako. Horregatik, Euskadin diogun errespetu bera izan beharko liokete Estatuko toki guztietan, formalki ezarritako itunak onartu eta errespetu behar direla ulertu behar dute-eta.

Itun Ekonomikoaren oinarri-oinarrian Euskadiren eta Estatuaren arteko aldebiko harremana dago. Harreman horretan, bada, alde biek elkarri aitortzen diote jarduteko ahalmena. Hortaz, bietako batek ere ezin dio besteari bere nahia inposatu eta ezinbestekotzat jotzen da hitz egitea, negoziatzea eta elkarren onerako itunak adostea. Horrelaxe jardun izan dugu hamarkadaz hamarkada, egokiro, eta Euskadiko erakundeok bide beretik jarraitzeko asmoa dugu, Itun Ekonomikoa eta Kupoaren Legea betetzeko. Itunak, hain zuzen, indarraldi mugagabea du 2002az geroztik, eta Kupoaren Legearen metodologia, berriz, indarrean dago 2021era arte.

Itun Ekonomikoa sistema zentzuduna da, objektiboa, justua eta solidarioa. Agerikoa da, bada, Euskadik alde bakarreko arriskua hartzen duela bere gain. Zerga-baliabideak administratzeko sistema hitzartu, eraginkor eta gardena da, eta lege-babes osoa eta zabala du. Horren adierazle da, esaterako, 1981az geroztik Diputatuen Kongresuan Itun Ekonomikoari lotuta hamazortzi lege berretsi direla diputatuen % 90 ingururen botoekin. Babes zabal hori indartzen duten beste bi kontu dira, batetik, Eusko Legebiltzarrean eta batzar nagusietan ordezkariak izan duten alderdi politiko guztiek bete-betean eta irmoki babesten dutela Ituna, eta, bestetik,

Europako Justizia Auzitegiak 2008an eman zuen epaia. Epaia horretan, hain zuzen, zera adierazi zuen: Euskal Itun Ekonomikoa bateragarria zela Europar Batasuneko zuzenbidearekin.

Gaur, esan bezala, 140 urte betetzen ditu sistema berezi honek. Munduan parekorik ez duen sistema batez ari gara, eta horregatik eskatzen diegu Estatuko eragile instituzional, sozial eta ekonomikoari zentzuz eta arduraz joka dezatela. Helburua da, azken batean, adostasunari eustea eta egonkortasunari duen balioa aitortzea. Hain zuzen, Itun Ekonomikoaren eta Kupoaren ereduak berezkoa duen ezaugarria da egonkortasuna.

Orobat, aukera politiko guztiak errespetatuta, gauza bera eskatu nahi diegu arduradun politikoei. Ituna onuragarria da Euskadirentzat zein Estatuarentzat, eta alderdien arteko lehia eta hauteskundeetakoa zilegi badira ere, ulertu behar dute Itunak lehia horretatik kanpo egon behar duela.

Gaur inoiz baino behar handia dago, beraz, deskalifikazioei aurre egiteko; batzuk zentzugabeak dira, beste batzuk, berriz, interesatuak. Halaber, komeni da gogoraraztea sistema arduratsua dela fiskalitatearen aldetik eta ez digula inolako pribilegiorik eragiten. Horren erakusgarri da, izan ere, haren ibilbide luzea eta betidanik izan duen legezko babes. Pribilegioa izango balitz, ezinezkoa litzateke ehun eta berrogei urtez irautea legezko estaldura garden horrekin eta adostasun-maila hain handiarekin.

Horiek horrela, bada, Itun Ekonomikoaren eta Kupoaren edukiaren gainean egiten diren desitxuraketak eta interpretazio oportunistak eta interesatu gaiztoak gaitzesten ditugu. Hauteskundeetan emaitza hobekak lortzea, horixe da adierazpen horien helburua, baina hori lortzeko lurraldeen arteko liskarrak erabiltzea ez da inondik inora ere zilegi.

Euskal gizarte osoari ere dei egiten diogu Itun Ekonomikoak daukan balio handiaz jabe dadin. Eskatzen diogu, orobat, konpromiso handiagoa izan dezala haren alde, eta babes dezala Ituna ezagutarazteko, zabaltzeko eta babesteko egiten ari den ahalegina. Hortaz, biziki gomendatzen diegu herritarrei bat egin dezatela adierazpen honekin eta babes ditzatela herritarrek, arlo akademikoak eta erakundeek abiatu dituzten ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko Itun Ekonomikoa indartzeko.

Hiru esparru horiei —erakundeei, politikariei eta gizarteari— egindako deia indartzeko, zera adierazi nahi dugu: konpromiso sendoa dugula Euskadiren eta Estatuaren arteko aldebiko hitzarmen politiko iraunkorraren aldeko defentsa sendotzeko. Itun Ekonomikoa da, hain zuzen, konpromiso horren isla, horregatik egon behar du joera edo egoera politiko ororen gainetik.

Hala, 140. urteurrena ospatzen ari garen honetan, Itun Ekonomikoaren eta Kupoaren alde daukagun konpromisoa berretsi nahi dugu, bizikidetzak instituzionalerako eta elkar-ulertze politikorako tresna eta gizartearen ongizaterako berme izaten jarrai dezaten nahi dugu-eta. Itun Ekonomikoaren sistema funtsezkoa da Euskadiren autogobernurako. Gure erakundeek ez diote sekula eta inolaz ere uko egingo errealitate horri, eta konpromisoa hartzen dugu geure gain tresna hori babestu, eguneratu eta sendotzeko, betiere euskal gizartearen zerbitzura.

DECLARACIÓN DE AFIRMACIÓN Y DEFENSA DEL CONCIERTO ECONÓMICO VASCO CON MOTIVO DE SU 140 ANIVERSARIO EL 28 DE FEBRERO DE 2018.

Hoy celebramos, conscientes de su trascendencia, el 140 Aniversario del Concierto Económico, piedra angular de nuestro Autogobierno y garantía de un mejor presente y un prometedor futuro para todo el Pueblo Vasco.

El Concierto Económico constituye, desde 1878, la base sobre la que se ha venido articulando la relación económica y financiera de los Territorios Históricos Vascos con el Estado y, desde 1981, la de la propia Comunidad Autónoma Vasca.

El Concierto representa un Pacto político entre Euskadi y el Estado, de singular valor y amparado constitucionalmente. Un Pacto de gran profundidad y alcance, refrendado en el Estatuto de Gernika y en virtud del cual se reconoce a los Territorios Históricos capacidad plena para establecer, mantener y regular su propio régimen tributario, como reflejo de su dilatada y permanente vocación de Autogobierno.

Además de su enorme significación política, el Concierto Económico aporta a nuestra relación y convivencia los valores de estabilidad, equilibrio, control y responsabilidad. Nos encontramos ante una Institución que ha concitado y concita el máximo respaldo de toda la sociedad vasca, con independencia de las diferentes adscripciones ideológicas o sociales.

Todas las Instituciones vascas (Juntas Generales de los Territorios Históricos, Diputaciones Forales, Parlamento Vasco, Gobierno Vasco y Ayuntamientos) apoyan sin fisuras el sistema concertado. Este representa el elemento esencial del compromiso político de convivencia con el Estado y, por ello, debe merecer para todos el mismo respeto del que goza en Euskadi, asumiendo que los pactos formalmente establecidos deben ser reconocidos y honrados.

La relación bilateral entre Euskadi y el Estado en que se fundamenta el Concierto, se asienta en el reconocimiento recíproco, de forma que ninguna de las dos partes puede imponer a la otra su voluntad, y consagra la necesidad de dialogar, negociar y convenir en beneficio mutuo. Así se ha venido haciendo satisfactoriamente, década tras década, y así lo seguirán haciendo las Instituciones vascas, en cumplimiento del Concierto que desde 2002 tiene vigencia indefinida y de la Ley de Cupo, cuya metodología alcanza hasta 2021.

El Concierto vasco es un sistema sensato, objetivo, justo y solidario, en el que Euskadi asume un evidente riesgo unilateral. Es un sistema acordado, eficiente y transparente de administración de los recursos tributarios que goza de pleno y dilatado respaldo legal. Así lo demuestra el hecho de que las dieciocho Leyes referidas al Concierto refrendadas en el Congreso de los Diputados desde 1981 hayan merecido un apoyo conjunto cercano al 90%. Ese poderoso respaldo legal se ve reforzado por el apoyo completo y sin fisuras de todos los partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco y en las Juntas Generales; así como por la sentencia del Tribunal de Justicia europeo que en 2008 determinó que el sistema de Concierto vasco es compatible con el derecho de la Unión Europea.

El día en que se cumplen 140 años de andadura de este sistema singular, único en el mundo, hacemos un llamamiento a la sensatez y responsabilidad de todos los agentes institucionales, sociales y económicos del Estado, para que se preserve el consenso y se valore la estabilidad que es consustancial al modelo de Concierto Económico y Cupo.

Hacemos extensivo ese llamamiento, desde el máximo respeto a todas las opciones, a los responsables políticos, para que sustraigan esta Institución, que tan positivos frutos ha dado a Euskadi y también al Estado, de la legítima disputa partidaria y electoral.

Hoy más que nunca es necesario salir al paso de descalificaciones, absurdas unas, interesadas otras, y recordar que el Concierto es un sistema fiscalmente responsable que no supone ningún tipo de privilegio. Así lo demuestra su dilatada historia y trayectoria, siempre respaldada legalmente. No hay privilegio alguno capaz de pervivir bajo una transparente cobertura legal y con tal grado de consenso durante ciento cuarenta años.

Rechazamos, por tanto, las tergiversaciones y las interpretaciones maliciosas del contenido del Concierto o el Cupo y su utilización, oportunista e interesada, para obtener pretendidos réditos electorales que nunca deberían buscarse con el negativo enfrentamiento de unos Territorios contra otros.

Apelamos también al conjunto de la sociedad vasca, para que sea consciente del enorme valor que contiene el Concierto Económico y pedimos un mayor compromiso con el mismo, así como el apoyo a los esfuerzos que se vienen haciendo para aumentar el conocimiento, difusión y defensa del mismo. Recomendamos vivamente a la ciudadanía la adhesión a esta Declaración y el respaldo a las iniciativas cívicas, académicas e institucionales que se han creado para fortalecer el Concierto Económico Vasco.

Esta triple invocación institucional, política y social queda reforzada por el firme compromiso de potenciar la defensa constante del Pacto político bilateral entre Euskadi y el Estado que representa el Concierto y que se sitúa por encima de cualquier posición o coyuntura política.

En su 140 Aniversario ratificamos nuestro compromiso con el Concierto Económico y el Cupo para que sigan siendo espacios de convivencia institucional, concordia política y garantía de bienestar para la sociedad. El sistema de Concierto es núcleo fundamental del Autogobierno vasco, una realidad a la que nuestras Instituciones nunca, y en ninguna circunstancia, van a renunciar y que comprometemos proteger, actualizar y potenciar al servicio siempre de la sociedad vasca.